




BERTSOLARIA ETA MUSIKA: HARREMAN ESTUA

Bertsoa pentsatu, idatzi, irakurri egiten da. Baina, batez ere, bertsoak kantatu egiten dira. Beraz, ezin uka daiteke bertsolaritzak eta era berean bertsolariek musikarekin duten harreman estua. Batzutan harremanok estuagoak izango dira besteetan baino. Baina, ezbairik gabe, bertsolaria bertso doinua erabiltzera behartua dagoen neurrian, musika kontutan hartzeko gauza izango da.

Testua: Izaskun ELLAKURIAGA
Argazkiak: Artxiboa

Bertsolariak bertsoan hasi aurretik bi gauza hartuko ditu kontutan: zer esan eta nola esan, hau da, bertsoaren edukia eta forma. Eta bi aspektu hauek garrantzitsuak izango dira.

Bigarren alorrari dagokionez, bertsoaren formari dagokionez hain zuzen, aukeratutako hizkuntza moldea bezain garrantzitsua izango da hautaturiko bertso doinua. Bertsolariak buruan dauzkan ideiak ordenatu eta entzuleari helarazteko doinu bat aukeratu behar du. Une horretan, beraz, bertsolaria musikarekin harremanetan jartzen da.

Bertsolariek bertso doinuez gain, musikaz orokorrean zer harreman duten jakin asmoz zazpi bertsolarien iritzia eta gogoetak jaso ditugu. Batzuk musikarekin duten harremana oso estua da, beste batzuen ahulagoa.

Xabier Amurizak, ematerako, harreman zuzena izan du musikarekin. Seminarioan izan zen garaian solfeoa ikasi eta irakastea ere tokatu zitzaion. Egutero ordu erdi musika ikasten ematen zuten Derioko seminarioan. Hasieran ikasle baino izan ez bazen ere, azken ikasturteetan irakasle gisara ere ibili zen. Horrez gain, seminarioan musika zaletasuna handia izanik, koruak antolatzen diren eta hauetan kantatutako ere bada. Tiple zein tenore gisa kantatu izan du eta polifoniaz gain, gregorianoa ere kantatzen zuen. Musikatresnarik ere jo du. Seminarioan elizako organoa eta piano jotzen zituen. Hala ere, txikitari pilotari jokatzeko eskuak apurtu eta gero pianoa jotzerakoan zailtasunak izan ditu. Horregaitik ez du pianoa nahi beste jotzen ikasi.

Igor Elortzak eta Unai Iturriagak ere Durangoko kontserbatorioan ordu asko egin dituzte solfeoko bost kurtsoak ikasten: Bestetik kontserbatorioko koruan ere kantatu zuten. Musikatresnarik ere ez dute faltan izan. Unai bibolina eta Igorrek piano jotzen ikasi zuten. Hala ere, 3. mailan zeudela utzi egin zitoten musikatresna jotzen ikasteari. «Bibolina ikasten jarraitu nahiez gero, denbora asko horri eskeintzea eskatzen zuen eta nik ez neukan horrenbesteko afiziorik. Hala ere, oraindik bibolina etxeko kamaran gordeta daukat», aitortu deu Unai. Igorrek, Unai ez bezala, utzi ostean ere jo izan du inoiz pianoa.

Xabier Ezukitzek ere musikarako zaletasuna beti izan du. Solfeo lehen bi mailak aprobaturatu ditu. Baina txistua jotzen nabarmentzen zen txikitari Euzkitze. Txiki-txikitatiki eraman zuten gurasoek txistua ikastera. «Sekulako afizioa neukan, tarterik neukan bakoitzean jotzen nuen eta maixuak ere harrituta uzten nituen. Hasiera hartan poxpolin izeneko batzuekin aritzen ginene eta asko joz gero arin apurtzen ziren. Nik sarritan aldatu behar izaten nuen eta txistu barri ugari izaten nituen». Baina txistuaz gain denborapasarako ahosoinua ere jotzen du noizean behin. Txistua jotzea bertsoen munduan sartzen hasi zenean utzi zuen.


Jon Sarasuak ere jotzen du musikatresnarik. Nahiz eta musika ikasketarik ez izan, soinu txikia, ahosoinua eta kitarra ere jotzen ditu noizean behin aretxabaletarrak. «Nire kabuz ikasi ditut. Batzutan anaiaren laguntza ere izan dut».

Sebastian Lizasok eta Millan Telleriak ere ez dute inolako musika ikasketarik egin eta musikatresnarik ere ez dute jotzen. Sebastianen kasuan, anaia izan da musika ikasi eta herriko musika bandan jo izan duena.

Hala ere batzuk eta besteek musika menperatzea lagungarri gertatzen dela adierazi dute.

Igorrek bertsolarien belarria lantzeko musika zerbait jakitea lagungarri deritza. «Nik ez dut uste bertsolari batek solfeo eta abar ikastea beharrezko dituenik. Baina belarria lantzeko laguntza handia dela ez dago dudarik. Bestetik egia da belarria ibilian ibiliz egin daitekeela». Unai ere iritzia berekoa dugu. «Bertsolari asko dago belarri kontuan platano hutsak direnak. Esaterako Sorozabalek berak eta bi pasatzen ditu doinuak harrapatzeko, baina buruz ikasten ditu eta gero ez zaio ezer igartzen».

Amurizaren ustez bertsoan bapatean egiteko ez da garrantzitsua musika menperatzea. Bide berriak bilatzeko, ordea, bai. Bapateko bertsogintzan kantaera eta belarri dira garrantzitsuak bere ustez. «Plazako bertsolariak izakera berezia edo karisma beharrezkoak ditu eta horren barruan gauza askoren artean kantaera faktore bat gehigo da. Belarri ona izateak ere laguntzen du. Baina bi fak-



tore hauek ikasi egin daitezke. Nik ezagutzen ditut bertsolari asko belarri txarrekoak, baina hori landu egin dute eta gero plazan ez zaie ezer nabaritzen.»

Euzkitzek ere musika menperatzea baino kantari ona izatean uste du dagoela gakoa. «Sebastian Lizasok, adibidez, nik baino musika formazio kaskarragoa izango du, baina ni baino kantari hobea da. Andoni Egaña bera ere kantari ona ez izan arren, badu besteok ez daukagun grazia bat, Azpillagak edo Egilleorrek bere garaian izan zuten bezalakoa. Seguru asko dotoreetan norbait aipatzekotan Egileor aukeratuko nuke. Beti lituratu izan nau kantatzeko zer nolako grazia eta dotorezia duen. Grazia horrek, bertsoa figura literarioz eta abarrez lagun dazakezun bezala, bertsoari brilloa ateratzen lagun dezake. Bestela, formazio musikalak ez dakit zenbaterainoko garrantzia izan dezakeen. Hala ere, kalte baino mesede gehiago egingo du.»

Bertsoen doinuen biltegia

Bertso koinu ugari dago. Juanito Dorronso-ro dugu bertso doinuen bilketan lan handia egin duenatariko bat. Dorronsorok 2000 doinutik gora jaso izan du. Baina bertsolariek nola bete eta hornitzen dute beren bertso doinuen biltegia?

Amuriza Azkueren kantutegia aztertzen denbora asko pasatutakoa dugu eta bertatik zenbait errejerentzia jaso izan du doinu berriak sortzeko. Guztira hogeitaz bertsu doinu berri inguru sortu ditu Amurizak. Doinuak atara egiten dira aitortzen du. «Normalean doinu berri bat sortzeko, lehenengo ideia bat izaten duzu. Eta gero, ideia hori landu ahala, bertso doinua moldatu eta atara egiten duzu. Gregoriano z kantatzen den Salve Regina erreferentziatzen hartuta egin dut doinurik. Gloria ere doinu baten erreferentzia izan nuen.»

Euzkitzek ere badauzka berak sortutako doinurik. Hala ere, oraindik ez da bere doinuak plazaratzen ausartu. «Hain formazio musikal eskasa izanik lotsatu egiten» baita berak adierazi bezala. Bestetik, doinu berriak bilatzen eta aztertzen lan gutxi egin duela aitortzen du. Belarri ona izateak edozein doi-



nuz jabetu eta gogoratzeko asko lagundu diola esaten du.

Jon Sarasuari, aldiz, kontrakoa gertatzen zaio. «Oso berezia naiz bertso doinuen kontuan. Oso memoria txarra daukat horretarako eta asko kostatzen zait doinu konkretu batez gogoratzea. Normalean unean uneko entzuten diren doinuak erabiltzen ditut. Hala ere, behin ahalegindu nintzen eta nik erabilitako doinu ezberdinen zerrenda bat egin nuen. Lan handia izan zen, doinuei izen bat jarri eta sailkatzea. Guztira Zortziko Handian ehunen bat eta Zortziko Txikian laurogehi bat zenbatu nituen. Baina gero, nola ez dakidala zerrenda galdu egin nuen eta harrez gero lan hori ez dut berririo hartu.»

Lizasok ere bertso doinuen biltegia plazan erabiltzen diren doinuak bereganatuz edo bestela musikariei doinu berriak egin diezazkieten eskatuz hornitzen du. Kaxiano eta Azpeitiako musika bandako zuzendariari askotan eskatu die. Telleriari, aldiz, betidanik gustatu zaio doinu ezberdinak erabili eta ha-



rakatzea. Tartean zenbait doinuri ere aldaketa txikiak eginez, bere gustora moldatzen ditu. Gustora egiten duen lana da.

Unaik eta Igorrek bertso doinuen alorrean beren buruak galdu samar ikusten dituzte. Bertsolaritzan oraindik gaingitu gabe duten ikasgaietako bat dela uste dute. Doinu asko entzun eta ezagutzen dutela esan arren, plazaten gehien entzuten direnak erabiltzen dituzte normalean.

Doinu gutxi erabili

Unaik eta Igorrek azaldu duten kezka ez da beraien arazoa bakarrik. Bertso doinu asko ezagutu arren, gutxi dira plazatan erabiltzen direnak eta gehienetan bospasei bertso doinu dira kanturako aukeratzen direnak. Lizasok adierazi duenez bertsolarien artean kezka hau gaingitzeko asmoa dago. «Bertsolarien artean ari gara zerbait komentatzen betiko doinuetatik atera beharraz. Batek edo bestek, lana partitu eta musikari batzuei zen-

bait doinu eskatzeko asmoa daukagu.»

Telleriaren ustez, doinu gutxi erabiltzeak badu bere arrazoia. «Gaur egun aukera inoiz baino zaabalagoa da. Hala ere, normalean doinu asko gogoan izan eta traraleatu arren, oholtza gaineen zaudenean betikoetara erortzen zara errez. Zu normalean doinu berri eta berezien bila baino esan behar duzuzaren kezka gehiago izaten duzu. Horregaitik jaialdietan doinu mugatuetara erortzen gara beti.»

Euzkitzek arazoa areagotua dakusa Zortziko Txikiaren neurrian. «Zortziko Txikian gutxi egiten dugu eta egiten dugunean beti doinu beretsuetan. Zergaitik? Ez da berez zortziko txikia gutxiago gustatzen zaigulako. Bere zailtasuna badu, eta agian zortziko nagusiari baino errespeto gehiago diogu. Baina hain gutxi egiten badugu, doinuen arazoa da nuerri handi batean horren eragile. Zortziko txikian, gustagarri, jendeari heltzen zaizkionak eta errepika dutenak pare bat baino ez daude eta horregaitik beti berdinak kantatu eta

apertu beharrean, errezeriz, Zortziko Nagusira jotzen dugu. Ez dakit eskaera hori nola bederatu beharko genukeen, gu norbaitengana jon edo Bertsolari Elkartearen bidez...».

Unaik ere doinu berrien beharra azpimarratzen du eta musikari edo musika ondo menperatzen duen bertsolariren baten lana dela uste du. «Bertso doinu berriak behar dira. Bertsolaritza berritzen doan neurrian musika ere bai. Gaur egungo bertsoak beste ezaugarri batzuk ditu, orain errepikapenak ere garrantzi handia izaten du... Nik uste dut arlo horretan badagoela nahi duenarentzat lana. Zenbait doinu berri eginez gero, publikoaren sufrimendua ere leundu dezake.»

Lizasok ere doinu berriak sortzearen lana musikariaren ardura dela uste du. Hala ere, eskaria bertsolariak bideratu beharko luke zein bertso doinu mota, zien ezaugarritakoa gus-toko duen adieraziz.

Doinu berriak, batez ere, txapelketa garaian plazaratzen dituzte bertsolariak. Bertso doinuen berrien plazaratzea bultzatzeko asmoa, Bertsolari Elkartek Txapelketa Nagusian bertso doinuen aportazio onena egin duen bertsolaria saritzen du. Azken txapelketan Euzkitzen eskuratu zuen sari hori eta berak aitortu duenez, ilusio handia egin zion.

«Lanak bukatu gunituenean eta sariak mahai gainera ekarri zituztenean, segituan bota nion begia eta egurrezko polit hura norentzako izango zen galdetu nion neure buruari. Gero neuri egokitu zitzaidan. Hala ere ez dut uste niri emateko saria zenik, azken batean besteen aportazioengandik eskuratu bainuen».

Millan Telleriak ere birritan eskuratu du doinuen saria. Gehienetan musikariek eskeintzen dizkiote doinuak, Kaxianok esatera-ko. «Kaxianok doinu asko moldatu dizkit. Noizbehin aipatu ere egin dit doinuak erabiltzen oso belarri ona dudala eta neretzako doinuak egitea merezi duela.»

Estilo berriak jorratuz

Doinu erabilien eskasia honetatik abiatuz, zenbait bertsolarik bertsoa musika estilo ezberdinetara egokituz zenbait aproba egin dituzte.

Sarasuak, adibidez, inoiz antzerakorik egin du. «Bertso jaialdietan baino gehiago lagun arteko giroan eta era ez formalean egin ditut horrelakoak. Dena den, ez pentsa oso erraza denik. Bertsoak badu bere erritmo propio bat eta bertsoa beste erritmo bati egokitu eta bapatekotasunak duen zailtasuna egokiro aurre-

HARPIDETZA TXARTELA

Izen deiturak _____
Helbidea _____
Herria _____ Telefonoa _____
Herrialdea _____
Banku/Aurrezki Kutxa _____
Sukurtsala _____
Kontuaren zenbakia _____

B I D A L T Z E K O

BERTSOLARI aldizkaria

Madrid Ibilbidea, 6 - DONOSTIA
Telefonoa (943) 47 11 42

SINADURA

1994-ko harpidetza (4 ale) 2.300 pezeta



ra ateratzea ez da lan erreza izaten. Hala ere, bertsolaritzan bide berriak probatzea eta arakatzea den guztia positiboa dela uste dut.»

Lizasok ere izan du horrelako esperientziarik. Urte berri egunez ETBko saio batean zaldi zuri baten gainean igo eta Pantxo Villa bihurtuta, mexikar doinuaz bertsotan arituzen. «Bertsolariak orain arte jakin du gizar-tearekin batera aurrera joaten eta horrelako saialdiak ondo dauela uste dut. Urte berritan mexikar doinuaz kantatu nuenean hasieran beldur pixka bat izan nuen, neurri ezberdinean kantatzea eskatzen zuelako. Baina nahikoa ongi moldatu nintzela uste dut.»

Igor Elortzak ere era horretako saialdiak ongi ikusten ditu eta inoiz berak ere aproba egin du. Baina bere ustetan, joera hori nagusitzeak entzulegoa aspertu eta nazkaraziko luke.

Zein bertso doinutan kantatu erabakitzekeo bertsolariak esan nahi duenari begiratzen dio batipat. Baina gusto kontuek ere badute zeri-kusirik. Euzkitzek, esaterako, «Juana Bixenta Olabe» doinua du gostokoa... «Doinu honekin errebeindikazio puntu bat ere azaldu nahi nuke. Txapelketa batean sei puntutik gorako doinua erabiltzera behartu gintuzten eta Juana Bixentarena ez ziguten onartu.»

Telleriak badu unkitu duen doinurik.

«Behin Txindokiko artzain txabola batera joan ginen Peña eta biok. Gogoratzen naiz artzain batek bertso zahar batzuk oso doinu atseginez, belarrira gustoz sartzen den horietako bat kantatu zuela. Izugarri gustatu zitzaidan eta handik hiru egunetara saio bateko agurrean doinu bera erabili nuen eta zenbait entzulek gustoko zutela ere adierazi zidaten.»

Unai eta Igorrek bertso doinuena moda kontua dela uste dute eta gaur bat gustoko duzun bezala, bihar beste bat izan daitekeela aitortzen dute. Hala ere, bertsotan egin zuten lehenengo aldiaren zein doinu erabili zuten gogoratzen dute. «Seguru Pello Joxepe edo Xarmangarria Zira izango ziren lehenengoz erabili genituen doinuak. Garai baten, bertsoa ondo menperatu arte Lopategik ez zigun beste doinurik erabiltzen uzten. Triste bizi naiz eta ausartinek erabiltzen zuten.»


Bertsolaria eta kantaria

Bertsolariak kantatu egiten duan neurrian, kantaria kontsidera genezake. Baian, funtsean, gauza ezberdin bi dira. «Bertsoa eta kantuaren artoko muga bereiztea zaila da. Hala ere, abertsolari eta kantaria ezin daitezke parekatu. Gauza ezberdin bi dira. Bertsolariak bertsoa, hitza du musika baino gehiago




Hontza
LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4
Tel. 42 82 89 - Faxe: 43 12 56
20 004 DONOSTIA







oinarri. Kantariak hitzez gain musika ere asko zaindu behar du, honek definitzen baitu bere burua», iruditzen zaio Sarasuari.

Hala ere, bertsolariek kantariekin harreman oso estuak izaten dituzte. Askotan bertsolariak kantarien letra egile bihurtzen dira. Horren adierazle garbia euskal musikagintzan dugu. Ia bertsolari gehintsuenek inoiz bertsoren bat edo beste idatzi izan dizkiote euskal kantariei. Honek bertsoak lantzeko beste aukera bat eskeintzen die bertsolariei.

Bestalde, bertsoak eta batez ere bertso jarriak zabaltzeko kantari eta musikaren laguntza izatea atsegingarria eta positibo ikusten du Sebastianek: «Ésperientzi polita izan zen duela bi urte. Loiola 91 zela eta Pello Esnalek jarritako bertso batzuk musika lagun eta tartean koruarien laguntzaz ikuskizuna egin zen Azpeitian. Nik uste dut entzulearentzat atsegingarriago dela era honetako saialdiak. Azken batean musika eta bertsoak euren artean lotura handia dute eta oraindik gehiago izan beharko lukete».

Sarasuak ere entzuleari begira egoki ikusten du bertsoak musikaren laguntzaz kantatzea. «Era horretan, agian, behen heltzen ez ginen tokietan sartzeko aukera dago. Eta beharbada, entzule mota berri bat ere eskuratzeko dugu.»

Musika entzunez

Bertso doinuez gain, bertsolariek ere beren gusto musikak dauzkate. Esate baterako, Sarasuak orokorrean musika mota eta estilo ezberdinak entzuten ditu. Hala ere musika gogorra ez du horren gustoko. Bestalde, Silvio Rodríguez da besteak beste asko entzuten duen kantaria.

Igor Hertzainak taldearen forofoa bada ere, musika estilo ezberdinak entzuten ditu. Unai ere Hertzainak taldearen zale da, baina Ruper Ordorika du norbait aukeratzekotan gustokoena. Hala ere, musika ezberdina entzuten dutela adierazi arren, badago durangar biek entzun ezin duten musikarik. «Lo más duro» eta era hortako musika jasanezina iruditzen zaie.

Lizasori musika orohar gustatzen zaio. Hala ere, egoera animikoak entzuteko musika mota bat edo beste aukeratzera bultzatzen du.

Euzkitzek musikazale amorratutzat jotzen du bere burua eta musika entzuteaz gain kantatzea ere izugarri gustatzen zaio. Kortexean doanean kantatzen du gehian eta normalean auto stopistak ez ditu hartzen oihuka eta kantari joan ohi delako eta norbait hartuz gero lotsatu egingo litzatekeelako. Bestalde, musika gehientsuena gustatzen zaio, nahiz eta atsegin ez dituenak ere izan. «Hevyak ez nau erakartzen, rap-ak ere ez. Bakalaoa ezin dut aguantatu eta gainera ez dut ulertzen nola arraio izan dezakeen duen arrakasta musikalitatez hain pobre iruditzen zaidan musika mota horrek». Gustokoen artean klasikoa, euskal kantariak, countrya, Luis Eduardo Aute eta beste zenbait espainiar kantautore, musika anglosaxoniarra..., atsegin ditu.

Telleriak ere musika diferente ugari entzuten du, baina gehienbat trikiti doinuak ditu atsegin. Hala ere, edozein musika entzuten duela baju entzutea gustatzen zaio. «Musika suabe entzutea gustatzen zait. Igual taberna baten sartu eta musika altu entzutean hau da hau musika alperrik gatatzea! pentsatzen dut nire barrurako»:

Amurizak ere musika mota asko entzuten du. Haurren musikan ere jantzia dugu. «Aspaldian alabarekin batera haur kantuak entzun eta kantatzen dut asko. Normalean, ordea, euskal kantariez gain gehien entzuten duen musika mota klasikoa izaten da. Musika klasikoari dagokionez, hala ere, badu nahi eta ezin bat. «Musika klasikoetan abangardistak kontsideratu genitzakeen musikariak ez ditut nik nahi beste jarraitu, batez ere aukerarik eta denborarik ez dudalako izan. Bestalde, Bach, Mendelson, Hendel, Vivaldi, Ravel..., asko entzun ditut. Gaur egungoak, ordea, Gonzalez de Azpiazu, Bernaola eta beste batzuk gutxiago jarraitu ditut. Hala ere, nik uste dut musika sinfonikoa dagoenetan konpletoena eta kreatiboena dela. Izan ere, musikatresna ezberdinen arteko egokitasuna eta kontrola lortu eta izatea meritu handiko gauza dela uste dut.»